

**A**urten lehen aldiz Elhuyar elkartearen ekimenez Zientzi dibulgaziorako Sariak antolatu dira. Idazle eta ikerlari berriei agerpidea eman eta zientziaren ezagutza gizarteratzea jotzen genituen helburutzat deia egitera ausartu ginenean. Alabaina, asmo hori han-

## Hogei urte eta gero... hau

**Pili Kaltzada\***

Zientziaren dibulgazioa egitera lehen aldiz ausartu ginenetik 20 urte pasatu dira jadanik. Denbora ez da ezeren truk igaro, eta egindakoaz harro bagaude ere, egiten segitu nahi dugula argitu nahi izan genuen. Urteotako bidea gogoratu eta aurrera jarraitzeko moduan gaudela frogatu nahi izan genion geure buruari. Koldo Mitxelena Kulturunean gurekin bildu zinetenak honen lekuko zarete.

diegia izan zitekeela pentsatuta, laguntza bilatzen hasi ginen, jakina baita elkarlanean bakarka baino hobeto aritu ohi dela. Hortaz, Elhuyarren asmoa bideratzen lagunduko lukeen sostengua nahitaezkoa zela jakinda, Beasaingo CAF enpresara jo genuen. Bere iharduera profesionalen bezala, euskararen normalizazioan ere goi-mailako jarrera duela erakutsi digu CAFek. Zientzia eta euskara uztartzen laguntzeko beti prest, Elhuyarren ametsa zena egia bihurtzeko oinarriak jarri zituen. Hortik abiatuta, elkarlanean hasi ginen urratsak ematen. Egia aitortzen hasita, erronka berriaren aurrean beldur ginela esango dugu. Ausartzea bera nahikoa apustu latza zen: nolako oihartzuna izango ote du? galdeztzen genion geure buruari. Lanak iritsi ahala lasaitzen hasi ginen, idazleek emandako erantzunak gure aurrikuspenik baikorrenak ere gainditu zituelako: 26 artiku-

Ander Gilenea



Ezkerretik eskuinera: Andres Arizkorreta, CAFeko Zuzendaria; Inaki Irazabalbeitia, Elhuyariko Lehendakaria; Martxelo Otamendi, Euskaldunon Egunkaria-ko Zuzendaria eta epaimahaikidea; Eustakio Arrojeria Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkariko Zuzendaria; Jose Mari Rodriguez Ibabe, CEITEko ikertzaile eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea Donostiako Injineru Eskolan, eta epaimahaikidea eta Unai Ugalde, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Donostiako Kimika Fakultatean eta epaimahaikidea.

lu eta 4 liburu jaso genituen, gehienak kalitate handikoak. Epaimahala azaroaren 17an bildu zen. Kideak hautatzea ez zen zeregin erraza izan. Zientzia eta teknologia, bi arloak orekatu behar zirela jakinda, dibulgazioaren oinarriak ezagutu eta punta-



ko irizpideak finkatzeko moduko "izarrak" behar genituen. Lortutakoaz harro gaudela esateak ez digu aurpegiak gorrituarazten: urteetako eskarmentua duten eta ospe handikoak diren ikerlari, kazetari eta irakasleak aritu dira lanak baloratzen eta, eztabaida luze eta mamitsuaren ondoren, sariak nori eman erabakitzen. Abenduaren leian elkartu ginen Donostian guzti honen berri zuen aurrean emateko. Aukera ezinhobea suertatu zitzaigun aspaldiko lagun zahar ugari ikusi eta urteotan egindako bideaz patxadaz iharduteko. Hortxe bildu ginen Elhuyar elkarteko kide eta lagun zaharrak, proiektu honetara juntatu berriekin. Orain dela 20 urte aitzindari-talde hark erein zuen haziak fruituak ematen segitzen duela ikusi ahal izan

genuen. Etorkizuna aiez ale egiten ari garelako.

### Guztiak sarituak

Elhuyar-CAF sariketara aurkeztu ziren lanak aztertu eta gero, gehienak saritzeko modukoak zirela argi eta garbi ikusi zuten epaimahaia osatu duten kideek. Erabilitako hizkuntza ulerterraza zen kasu gehienetan eta, dakigunez, ezinbesteko baldintza da hau dibulgazioa egiteko. Honez gain, gaiak etorkizunerako duen proiektzioa eta gaurkotatasunarekiko lotura saritu nahi izan ditugu; gurean zerbait izatea nahi badugu, zientziaren dibulgazioa oinarri hauetan eraiki beharra dagoela uste baitugu.

Iritziak iritzi, aurkeztutako lanetarik bost baino ez dira "ohorezko zerrendan" sartu; artikulu-mailan hiru eta bi liburuetan. Edonola ere, Elhuyar aldizkariaren irakurleek guztien berri zehatzagoa izan dezazuen, sarituak eta saritugabeak, guztiak argitaratzeko asmoa dugu. Hurrengo aleetan irakurri ahal izango dituzue.

### Artikulu onenak

Hirugarren saria (25.000 pta.) **Iban Zaldia Gonzalezek** eskuratu du, "Teknologia berri-

### Epaimahaiko kideen zerrenda eta ekitaldian egoterik izan ez zuten bi epaimahaikideen argazkiak

**Joxerra Aizpurua:** Injinerua eta Elhuyar Taldeko kidea.

**Martxelo Otamendi:** Kazetaria eta Euskaldunon Egunkaria-ko Zuzendaria.

**Jose Mari Rodriguez Ibabe:** Injinerua, CEITeko ikertzailea eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea Donostiako Injineru Eskolan.

**Jesus Mari Txurruka:** Biologoa eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Leioako Zientzi Fakultatean.

**Unai Ugalde:** Biokimikaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Donostiako Kimika Fakultatean.



Joxerra Aizpurua



Jesus Mari Txurruka

## Iñaki Irazabalbeitiak, Elhuyar Kultur Elkarteko Lehendakariak, esandakoa

1. "... Joan den Irailean 20 urte bete zituen gure elkartearen agerkariak, Elhuyar aldizkariak. Gauza txikia dira 20 urte agian, nanoinstant baino ez historiaren harian. Alabaina, hogei urte horiek erabakiorrak gertatu dira euskararen bilakaeran, gure mintzairak aurrerakada paregabe eta sinesgaitza egin baitu. Elhuyar aldizkaria gertakari horren lekuko eta protagonista zuzena izan da."

Ander Gilenea



2. "... Orain, sendo eta errotuta dagoen euskara batua, erauntsiak astindutako landaretxoa zen. (...) Euskara batua ume jaioberria izanik ere, lauhankatan ikasteko betarik izan gabe, korrika egin behar izan zuen etsaien horzkadei saihesteko. Giro haren lekuko da Elhuyar aldizkariaren lehen alean idatzitakoa:

<<Euskal kultur gintzan ia dena egiteko daukagula gauza jakina eta tamalgarria da. Sukaldeko girotik eta lagunartetik irteten garen bezain laster bide ilunetatik abiatzen gara, euskara lotsagarri geratzen zaigu batzuetan. (...) Euskarari, zientzien plazara jalgi dadin, agerlekuak prestatu behar dizkiogu, bere sortzaileek nolakoa den erakuts diezaguten eta denon artean haiei lagun diezaiegun gero eta helduago, egokiagoa, apainagoa sortzen».

3. "Egia aitortzeko, beldur ginen zientzi dibulgaziozko sariak antolatzea erabaki genuenean. Nolakoa izango da erantzuna? galdetzen genion gure buruari zalantzaz. Erantzunak ordea gure asmorik baikorrenak gainditu ditu. (...) Are gehiago, idazle berri, ibilgabean bila genbiltzala kontutan hartzen badugu. Beraz, orain 20 urte amets zoro zena, errealtate hunkigarria da egun. Zorionak, beraz, parte hartu duzuen guztioi. Ez gure deiari kasu egin ez. Elhuyarren sortzaileen amets zoroa gauzatu duzuelako, zuen lanek, oro har, goi-mailako kalitatea izan dutelako bakarrik. Eta hori da benetan inportantea."

4. "Goi-maila lortu du CAFek teknologiaren munduan eta, era berean, goi-mailako jarrera erakusten ari da euskararen normalizazioan. Eta egia aitortzeko euskarari mesede handiago dago esku artean duen enpresan euskararen erabilera sustatzeko planari tinko eusteak, sari hauek espontsorizatzeak baino. Eta horregatik eskerrak eman behar dizkiogu euskaldunok CAFi, euskalduntzean ere aitzindari gertatzen ari delako".

en-harreraz: **Papergintzaren hastapenak Hego Euskal Herrian (1755-1842)**" izenburuko lanagatik. Epaimahaiaren iritziz, papergintzaren sorrera aztertuta egileak gaurregungo egoera ekonomikoak eta teknologikoak hobeto ulertzeko bideak proposatzen ditu, garai hartako aldaketetan oinarrituta.

"**Erremintarako zeramiko eta zernet direlakoan diseinu mikroegiturala**" izeneko lana aurkeztu zuen **Miren Gozone Barandika Argoitia** gazteak eskuratu zituen 50.000 pta. hots, artikulu-mailan bigarren saria. Kasu honetan, konposite deituriko materialen ezaugarriak eta erabilpena errazteko bidea eskaini izanagatik suertatu zen saritua. Kontutan hartu zen, bestalde, Euskal Herrian bertan garatutako ikerlanaren emaitza dela, eta gaia ulertzen zaila izan arren, era dibulgatiboan burututa dagoela.

Ikuspegi zabal eta historikotik abiatuz, zientziaren tratamendu formalera iristen delako. Maila zientifiko aurreratua eta aurrera begira dagoela erakutsi duelako. Eta, azkenik, Euskal Herrian egiten den zientziaren adierazle zuzen eta zehatza delako. Izan ere, Taxolaren sintesiari buruzko lehen ikerketa garrantzitsuenetakoa EHUn egin dira eta horri lotzen zaio artikulu-mailan lehen saria eskuratu zuen lana: "**Taxola: naturaren bi aurpegi adibide**". Honen egileari **Jose Javier Gracenea Zapiraini**, hain zuzen, 100.000 pta-ko "laguntza" eman zitzaion azaldutako bide horretatik lanean segi dezan.

### Zeresana emango duten liburuak

Ondo hornitutako azterketa egin eta materiaren osagaiak era dibulgatiboan aztertu izanagatik **Jose Antonio Legarreta Izuetaren "Materia eta bere**



**osagaiak**" izeneko liburuak 50.000 pta-ko akzesita eskuratu zuen. Sarituak berak aitortu zigunez, ez zen batere zeregin erraza izan: hasi teoria ximpleenetatik eta partikula konplexueneraino, astuna gerta daitekeen gaia arintzea ei zuen helburua. Epaimahaiaren iritziz, maisuki lortu omen du.



Liburu-mailan aurkeztutako lanetarik onena **"Ugal estrategia: sexua joko ebolutiboan"** izenburukoa suertatu zen. Epaimahaia osatu duten kideek ahobatez erabaki zuten Arturo Elosegi gaztearen ahalegina saritzea.

Liburu-mailan aurkeztutako lanetarik onena **"Ugal estrategia: sexua joko ebolutiboan"** izenburukoa suertatu zen. Epaimahaia osatu duten kideek ahobatez erabaki zuten **Arturo Elosegi** gaztearen ahalegina saritzea, gai sakona eta era berean edonorentzat interesgarri izan daitekeelako. Ulerterrazta izanik ere, puntako ikertzaileen jakinmina ere ase dezakeelako eta idazleak beraren ekarpenak bertan uztartu dituelako eskuratu zuen 600.000 pta-ko lehen saria.

♦ ZETIAZ - Elhuyar

**Andres Arizkorreta jaunak,  
CAFeko Zuzendariak, esandakoa**

Zuetako gehienok jakingo duzue CAFen Burdinbiderako Material Mugikorra ekoizten dugu. Trenak egiten ditugu. Etengabe aldatzen ari den sektorean mugitzen gara, hiritarren garraio masiborako planteatzen diren soluziobide ezberdinak zuzeneko eragina duten sektorean. Hiri barru eta hiri arteko garraioan gaude, ibilbide laburrekoan eta luzekoan, abiadura normalekoan eta abiadura handikoan.

Une honetan, eta gero eta gehiago, merkatuen globalizazio-prozesua ari da gertatzen. Bezeroak produkturik onena bilatzen du, bere beharrezan ondoen erantzuten diena, dagoen tokian dagoela.

Nazioartekotasun-fase batean gaudela esan liteke beraz, eta saiatzen ari gara esparru horretan gure egoera egunetik egunera sendoagoa izan dadin, horretarako gero eta lehiakorragoak izanez.

Teknologia faktore estrategiko guztiz garrantzitsua da guretzat. Hori da gure errealitatea. Gure lantegia Euskadin dago, eta CAFen lan egiten dugun gizon eta emakumeak euskaldunak gara. Gure plantilatik erdiak baino gehiagok hitz egiten du euskaraz.

Hori ere gure errealitatea da. Urteak dira jada, lantegian euskararen normalikuntza bultzatzeko politika bati ekin geniola. Orain, esperientzia pilotu bat hasi dugu, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren babesean.

Une honetan ahalegin handia egiten ari gara Giza Baliabideak gehitzen, batez ere teknologiararen arloan. Garapen teknologikoari bultzada berria emango dioten pertsonak gehitzen. Eta asko, euskaraz lan egiten duten injineru eta teknikariak dira.

Etorkizunarekin dugun konpromezua, gure iraunkortasuna bermatuko duen egoera industrial sendotzea da. Gure enpleguak bermatzea. Eta konpromezu hau, lehen esan dudanez, mundu osoan dago, gero eta gehiago. Eta Euskadin ere badago.

Hori da errealitatea. Laburki bada ere, argi utzi nahi izan dut aurrekoa, gure gaurko eta hemengo presentzia hobeto ulertzeko. Harrigarria badirudi ere, erabat normala da, hori baino gehiago, beharrezkoa dela esango nuke, gaur eta hemen egotea.

Ander Gilenea

